

ERRIETAN

ORDULARIA

Goiz baten zan. Etxetik urten eta beste barik, ordulari-kanpai ots zoli ta gozo bat entzun neban abesti antzera. Belarria adi adi, jarri jatan entzuten. Oi ze zarata piña daukan kanpai orren otsak!! Egiz, ordua atsegiñez entzun eben nire belarriak. Baiña ez nekien zer zan ta nundik etorren ordulari ots ain lilluragarria...


Pausu batzuk aurrera ta plazatik ikusi neban Udal-etxeko ordulari barria. Alai eta bikain egoan orma zabalean, bakaulkian jarrita dagoan gizonaren antzera kaleetara begira. Zorionak ordularia ta ordu onean etorria! Zure arpegiak, zure markak, zure soiñuak guztioi zerbait esaten deusku.

Izan bere, zure erria eder-zale, argi-zale, soiñu-zale da.

Nork ez ditu maite San Antontxu ostein agertzen diran zelaietako berdetasuna, sasetako bizi barriaren ernerea, sagastietako sagarraren bizitasuna, eguzki berberaren argitasun barria...? Danok datoz batera alkartasun anaikorrean zure kanpai-otsak edertasun ori osotzen dabela. Izadiaren arpegi ori zoragarria dan legez, zure arpegi ta soiñu-otsa be belarrientzat ozen ta zolia da.

Egunaren barria emoten deusku gogorkeri barik, naita bizitzako urteetan, aurrera, goazela adierazi. Bere abilitadea dauka soiñu eder baten bidez gizona, poz-pozik, egunik egunera, aurrera, eroateko. Berezkoa da, izan bere, gizonaren biotzean ederraren eder miña, ta orretan, ordulari barria, egiz, goragarria da.

Gure bizia bai ta be, argizale da. Illuna berez da bildurgarria, bizia zapaltzen dauan piztia. Azeri ta otsoak, gabaz, datoz mendi goietatik arboladietan bera oillotegi ta base-ri inguruetara, euren gosea kentzen. Arrapariak be, gabaz, dabilzaz sarritan. Lurrak



argizale dira euri ederren ondoren; argiak dakar ba bizia. Ordularia, zure arpegia be, olantxe, agertzen da argi ta leial.

Irugarren gauz eder bat zure soiñua da. Euskalduna, geien bat, entzumen onekoa da. Gure mendi, zelai ta itxasoak kantariak doguz, ta or, sortzen dira emengo giza-seme ta alaben belarri on ta abots pitxiak. Ortik datoz gure abes-batzak, ortik gure erri kantariak... soiñuaren ederra nun dagon, arin, konturatzen da euskal belarria. Orain, erria kantari ta ordularia kantari, biak batera, datoz soiñu edertasunean.

∩∩∩∩∩∩∩∩∩

Ordulariaren ots
zidarrezko dirudi
urdiñean zear;
aize dardaratiak
pozezko soiñuagaz
belarrian dardar.

Erriaren erdian
orma nausian dago
adierazlea;
unerik une dabil

lur ta izarrei begira
aldien neurlea.

Zuzen ta leiala da
ekaitz aldietan lez
eguzki argitan;
jakitunen argia
burdin puntan daroa
soñu gozoetan.

PAULIN